



Elikagaien Erosketa Jasangarrirako Estrategia Osakidetzako Ospitaleetan

EUSKAL OSASUN SISTEMAN ELIKADURA
SISTEMA JASANGARRIA SUSTATZEKO HAZI BAT



ELIKAGAIEN EROSKETA JASANGARRIRAKO ESTRATEGIA OSAKIDETZAKO OSPITALEETAN: EUSKAL OSASUN SISTEMAN ELIKADURA SISTEMA JASANGARRIA SUSTATZEKO HAZI BAT

Egileak:

Goiuri Alberdi Aresti [ASUNEK behatokia eta Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea], eta

Mirene Begiristain Zubillaga [Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea]

Kolaboratzaileak:

Eduarne Magro Montero (Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutua – Fundación Deusto)

Marijose Aranguren Querejeta (Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutua – Fundación Deusto)

Finantziazioa:



Europar Batasuneko Horizonte 2020 ikerketa eta berrikuntza programaren bitartez finantziatua, Marie Skłodowska-Curie 836353 dirulaguntzarako akordioaren baitan.

Doako hedapen digitalerako dokumentua.

Erabilpen bibliografikorako, lan hau honela izendatuko da:

Alberdi G., Magro E, Aranguren MJ & Begiristain M. (2023) *Elikagaien Erosketa Jasangarrirako Estrategia Osakidetzako Ospitaleetan: Euskal osasun sisteman elikadura sistema jasangarria sustatzeko hazi bat*. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

Liburu hau baimen baten pean banatzen da: Aitorpena - Ez komertziala; hemen kontsulta daiteke: http://creativecommons.org/choose/?lang=es_ES. Argitalpen honetako edukinen erreproduktzioa baimenduta dago, beti ere jatorria aipatuz gero eta helburu komertzialik gabe egiten bada.

2023ko urria

Diseinua eta maketazioa: Aizu Aiz www.aizuaiz.eus

Itzulpena: Maribi Ugarteburu Markuerkiaga

Aurkibidea

01 // TESTUINGURUA	4
Osasun sistemak eta Elikadura Sistema Jasangarriak (ESJ)	4
Dieta eta Osasuna	5
Elikadura inguruneak	6
Klima larrialdia, osasun publikoko arazoa	7
Paradigma sozialaren beharrezko aldaketa	7

02 // HELBURUA	8
-----------------------	----------

03 // ELIKAGAIEN EROSKETA JASANGARRIRAKO ESTRATEGIA BATEN EZAUGARRIAK	10
--	-----------

04 // TOKIAN TOKIKO ABIAPUNTUA: EUSKADIKO OSASUN SISTEMAREN BAITAKO ELIKADURA SISTEMA	11
Elikagaien erosketaz Osakidetzak gaur egun daukan ikuspegia	12

05 // OSAKIDETZAKO OSASUN ERAKUNDEETAN ELIKADURA SISTEMA JASANGARRIRAKO HAZI BAT	14
---	-----------

06 // ELIKAGAIEN EROSKETA JASANGARRIRAKO ESTRATEGIATIK ESPERO DAITEKEEN ERAGINA	16
--	-----------

ERREFERENTZIAK	18
-----------------------	-----------

01 // Testuingurua

OSASUN SISTEMAK ETA ELIKADURA SISTEMA JASANGARRIAK (ESJ)

Osasunaren Mundu Erakundeak honela definitzen du **osasun sistema** bat: osasun ekintzak egiten diharduten organizazio, erakunde eta baliabideen multzoa. **Osasun ekintza**, berriz, osasuna sustatu, berreskuratu edo mantentzeko helburu nagusiarekin egindako edozein ahalegin izango da, bai lehen mailako arretan, bai osasun publikoko zerbitzuetan edota sektore arteko ekimenen bidez (1).

Osakidetzak, osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko bere gida metodologikoan, honela definitzen du **osasun komunitarioa**: komunitate zehatz bateko norbanako eta taldeen osasunaren adierazpen kolektiboa da, eta **berau zehaztuko dute** norbanako, familia, eta ingurune sozial, kultural eta ingurumenekoaren ezaugarrien arteko **interakzioek**; baita osasun zerbitzuek ere, eta maila globaleko ezaugarri sozial eta politikoek; hau da, **osasunaren determinatzaile sozialek** (2).

Coronavirus-19 (COVID-19) pandemiak agerian jarri du gure gizartearen erresilientzia falta. 1. irudian ageri diren osasunaren determinatzaile sozialetako askok kolapsatu egin zuten bapatean (langabezia, hezkuntza, osasun zerbitzuen murrizketa...). COVID-19ak erakutsi du nola osasun sistemetako hauskortasunek eragin sakonak izan ditzaketen osasunean, aurrerabide ekonomikoan, gobernuetikiko konfiantzan eta gizarte kohesioan (3).

Era berean, pandemiak agerian utzi du **gaur egungo elikadura sistemen hauskortasuna**, eta begien aurrean jarri du elikadura sistemaren osagai guztien arteko **lotura** (4) (nekazaritza industrialak habitaten galera eragiten du, eta birusak sortu eta hedatzeko baldintzak dakartza; hornikuntza kate hauskorrak; prezioen igoera latzak; merkatuak itxita; lanpostuen galera, pobrezia larrituz; elikadura segurtasun eza eta desnutrizioa...) (5, 6).



1. IRUDIA: OSASUNAREN DETERMINATZAILE SOZIALAK.
Iturria: Eusko Jaurlaritzak eraldatua Dahlgren & Whitehead-etik (2)

Nabarmendu da elikagaiak ez direla beste edozein oinarriko produktu bezalakoak, eta **Elikadura Sistema Jasangarritarantzko (ESJ) paradigma aldaketa, aspaldian galdegin izan dena, inoiz baino beharrezkoagoa dela orain**, egun nagusi den elikadura sistemak ingurumenaren degradazioa, gaixotasunen hedapena eta desberdinkeria sozioekonomikoak bultzatzen baititu (6).

Baina, zer ulertzen dugu **elikadura sistema jasangarritzat**? Modu integrean biltzen ditu sistema honek elikagaien

ekoizpen, eraldaketa, banaketa, etxe barruko zein kanpoko prestaketa eta kontsumoarekin lotutako jarduerak eta elementuak (ingurumena, pertsonak, insumoak, prozesuak, azpiegiturak, erakundeak, eta abar); baita jarduera horien emaitzak ere, eragin sozioekonomikoak eta ingurumenekoak barne (7). Gainera, **dieta jasangarriak** biodibertsitatearen eta ekosistemen babesleak dira, kulturalki onargarriak, eskuragarriak eta ekonomikoki justuak; nutrizio aldetik egokiak, seguruak eta osasungarriak, eta era berean natur eta giza baliabideak optimizatzen dituzte (8).

DIETA ETA OSASUNA

Osasunaz, arriskuez eta heriotza zein gaixotasunen jatorriaz Euskal Autonomia Erkidegoko datu epidemiologikoek erakusten dute jateak gaixotu egiten gaituela (9). Baieztapen hau onartu da Eusko Jaurlaritzak eginiko "Elikadura osasungarriko ekimenak EAEn" azterlanean ere ("**Iniciativas para una alimentación saludable en el País Vasco**") (10).

Euskadi ez da egoera globalarekiko ezberdina, gaixotasun ez-kutsakorrek¹ dira nagusi, eta horrek eragin nabarmena dauka Osasun Zerbitzu Nazionaletan (2). Izatez, elikadura ez-osasungarria da Euskal Herrian eta munduan gaixotasunen eta bizi kalitatearen galeraren eragile nagusia. Honela, gaixotasunen sorburu nagusiak aztertzen baditugu, ageri da duela 60 urte baino gehiago ia denek zutela zerikusia kutsatze faktoreekin; eta gaur egun, ordez, gaixotasun nagusiek ingurumeneko eragileekin dute lotura. Eta horretan, dieta da gure osasunean eragiten duten faktoreetako bat, bizimodu sedentarioa eta tabakoa bezala.

Gainera, elikadura osasungarriko gizarte-determinatzaile batzuk dauden bezala, elikadura osasungaitzerako gizar-

te-determinatzaileak ere badaude, eta horiek osasunean dituzten ondorioak ere bai. Hala, horiek ez diote berdin eragiten gizarte osoari, eta gizarte-talde jakin batzuetan kontzentratzen dira. Desberdintasun horren zati handi bat azaltzen duten bi gizarte-determinatzaile handi identifika ditzakegu: gizarte-klasea eta generoa. Emakumeen osasun-egoerari, lan-egoerari eta gizarte-klaseari buruzko datuak gurutzatuz, emaitzak adierazten du emakumeen osasuna nabarmen okertzen dela lan-merkatu sartzan denean, baldin eta etxe barruan etxeko lanak berdintasunez banatzen ez badira. Eta bigarren ebidentzia bat: ugalketa-eremuko zereginen bidezko banaketak gizarte-klaseko gradiente bati jarraitzen dio, nahiz eta guztietan emakumeek gizonek baino askoz denbora gehiago ematen duten zeregin horietan (besteak beste, elikaduran), ratioa nabarmen okertzen da herri-klaseetan. Beste era batera esanda, herri-klaseetako emakumeentzat lan ordaindua izateak okerrera egiten du osasun-indizeetan, eta ez da horrela gertatzen maila horietako gizonekin. Etxeko lanen edo ugaltze-eremuarekin zerikusia duten lanen banaketa desorekatuaren emaitza da hori (9).

¹ Gaixotasun kronikoak, iraupen luzeak, hainbat faktoreren nahasketaren ondorio direnak: genetikoak, fisiologikoak, ingurumenekoak eta portaerazkoak.

Baina, ebidentziak hor izan arren, **gaur egungo elikadura sistemen ezaugarri negatiboak, ekoizpenetik hasi eta kontsumorainokoak, ez dira islatzen elikagaien kostuetan ere;** eta horregatik sektore publikoak bere egiten dituzten kostu horiek osasun arretan eta kaltetutako ekosistemen

ELIKADURA INGURUNEAK

Orain artekoak argi erakutsi du heziketa eta informazio baliabideek bere horretan ez dutela eragiten dieta osasungarriaren ziklo elikadura trantsizioan (12,13). Aitzitik, **elikadura inguruneek** bai erakutsi dute gaixotasunak prebenituko dituen nutrizioa sustatzeko gaitasuna (14), hau da, **“osasunerako aktibo”** gisa definitzen dira. Elikadura ingurunea elikadura sistemaren baitako leku kritikoa da, bertan dieta jasangarriak sustatuko dituzten esku-hartzeak inplementatzeko, eta modu horretan mundu mailako sindemiak diren obesitatea, desnutrizioa eta klima larrialdiari aurre egiteko. Izan ere, elikadura ingurunean aukera guztiak daude kontsumitzaileek erabaki dezaten zein elikagai eskuratu eta kontsumitu (15). **Elikadura portaerak aldatzeko modurik eraginkorrena eta bidezkoena, elikadura hautapenak eragiten dituzten faktore estrukturalak aldatzea da** (16). **Elikadura inguruneak, hornitzaile diren elikadura sistemen eraginpean daude, eta alderantziz.** Elikadura sistema hauek bere baitan hartzen dituzte elikagaien ekoizpen, eraldatze, merkaturatze eta kontsumoan eta hondakinen kudeaketan ari diren pertsona eta erakundeen arteko jardura eta harremanak. Pertsonen elikagaien inguruko erabakiak hartzen dituzten espazioak definitzen ditu: zer jan, non eta nork erosi, non eta nork kozinatu, eta noiz, non eta norekin jan. Horrela, elikadura inguruneetan esku hartzea dieta osasungarriak sustatzeko gaur egungo nutrizio erronkei ekiteko

berreskurapenean. Europako Batzordearen 2017ko datuek erakusten dute elikadurarekin lotutako gaixotasunek Europar Batasuneko osasun gastu publikoaren %7,8 eragin zutela, eta gobernuetako aurrekontuetan partida handienetakoa eta gehien hazten ari dena dela ondorioztatu dute (11).

sortzen ari den estrategia da (17,18). Beraz, elikadura inguruneek posible egiten dute pertsonak ahalduntzea haien **hautaketa gaitasuna erabiltzeko, Elikadura Sistema Jasangarriaren ziklo trantsizioarekin bat eginez** (16).

Elikadura inguruneen sorkuntzan oinarritzekoak dira **tokiko elikadura sistemetan jaiotzen diren prozesu eta artikulazio proiektuak, esate baterako: gune logistikoak,** ekoizpen txikiarako eraldaketa guneak, tokiko ekoizpen ekologikoaren errealitatearen neurriko araudia, pertsona ekoizleen lan baldintzak hobetzeko ekintzak, belaunaldien erreleboa erreztzeko balio agroekologiko handia duten lurak gordeztea,... Hari horretatik tiraka, gure lurraldean baditugu erreferentziako adibide batzuk, aipatutako elikadura ingurune jasangarrien sorkuntzan eragin zuzena daukatenak. **Ekoalde²,** esate baterako, errestaurazio kolektiborako kanal laburrak sustatzen dituen ekoizle elkarte bat da; besteak beste Nafarroako Unibertsitate Ospitalerako elikagaiak hornitzen ditu. Zaldibiko Goizane eraldaketa zentroa zerbitzu giltzarria da ekoizleek haien produktuak eralda ditzaten eskala txikian. Bestetik, **Lurzaindia³,** lurra nekazaritzarako baliabide gisa babesten duen elkarte bat da, nekazaritzako lurren gaineko espekulazioa ekiditen saiatzen da, eta beharrezkoa denean, lurra erosi egiten ditu tokiko nekazariari alokatzeko, modu horretan belaunaldien arteko erreleboa lagunduz.

² Ekoalde: <https://www.ekoalde.org/es/> / ³ Lurzaindia: <https://lurzaindia.eu/eu/>

KLIMA LARRIALDIA, OSASUN PUBLIKOKO ARAZOA

Klima aldaketa eta ingurumenaren degradazioa gizakion osasuna kaltetzen ari dira eta ariko dira, eskala handian, zuzenean zein zeharka. Eragin kaltegarri horien artean daude asma, gaixotasun kutsakorren bektoreak, arnasketa gaixotasunak eta alergia, haurren garapenaren kaltetzea eta bizien galera, eta honek guztiak karga esanguratsua eragingo du klimarekin lotutako mediku arretaren kostuetan (19). Zenbait ikerketek urteroko bilioikako gastuak aurreikusi dituzte osasun zerbitzuetan klima larrialdia eragindako gaixotasunei aurre egiteko (20,21), eta horrek, bere dimentsioagatik, osasun sistemen degradazioa eta desberdinkeria larritzea eragin dezake. Osasunerako Mundu Erakundeak aurreikusi du 2030 eta 2050 artean klima aldaketak urtero 250.000 heriotza gehigarri eragingo dituela, malnutrizioa, paludismoa, beherakoa eta beroak eragindako estresa tarteko (22). Hickman eta col. (2021)

ohartarazpena egin dute, era berean, gazteengan hazten doan antsietate klimatikorako joeraz (23).

Beraz, asko dira errepikatzen ari diren ebidentziak, **klima aldaketak aurrera egin ahala giza osasun onerako behar diren ingurumen balditzak mehatxatuta** egongo direla diotenak; tartean aire garbia, ur edangarria, patogenoen maila baxua, eta kantitate zein kalitate nahikoarekin eta ziurrarekin landaketak, animaliak, arrainak eta elikagai silbestreak ekoiztu, hazi edota biltzeko gaitasuna (24). Honek populazio guztien egoera nutrizionala kaltetuko du, baina jarraituko du kalte handiagoa eragiten populazio pobretu eta baztertuengan, emakume eta gizarteko pertsona zaurgarriengan, eta munduaren ipar eta hegoaren arteko ekitatean gaur egun dauden arrakaletan sakonduz, nutrizio eta osasunari dagokionez (3).

PARADIGMA SOZIALAREN BEHARREZKO ALDAKETA

Ebidentzia hauen guztien aurrean, erakunde publikoek, **kontratazio publikoaren bidez, ekiteko gaitasuna eta berrikuntzan eragiteko aukera itzela** daukate. Osasun erakundeen kasuan, elikagaien erosketa handiak egin behar dituztenez, elikadura sistemaren jasangarritasunaren hainbat dimentsiotan eragin dezakete (25). Tokikoak eta jasangarriak diren elikagaiak lehenestek elikagaiok ekoizteko modua zuzenean aldatzeko potentziala dauka (26), horrekin batera osasun sisteman eragin positiboa izanik; baita jarduera ekonomikoan, gizartean eta ingurumenean ere (27).

Norabide horretan, erakunde publikoetan elikagai jasangarriak erostera bideratutako trantsizio prozesuak Europako

Batasunaren politika eta estrategien barruan kokatuta daude, eta kide diren estatuek bere egin beharko lituzkete. Hari honetatik, **Europako Itun Berdeak** baliabideen erabilera eraginkorra sustatzeko ekintza plana dakar, ekonomia zirkular garbian oinarrituta, biodibertsitatea berrezartzeko eta kutsadura murrizteko. Europako Itun Berdearen helburu nagusia 2050erako klimatikoki neutroak izatea da (28). Hori lortzeko, Itun honen ardatz nagusia da **Etal-detik Mahaira Estrategia** (*Farm-to-Fork*), bere helburua izanik bizitza bidezko eta osasungarria, eta ingurumenarekiko errespetuzkoa izango den elikadura sistema lortzea (29). **Europar Batasunak ezarritako helburu horiek lortzeko, beharrezkoa da paradigma aldaketarako trantsizio proze-**

su bat. Orain ahalegin ekonomikoa eskatzen du elikadura sistemetan inbertitzeak, baina beste arlo batzuetan egingo diren aurrezpenek gainditu eta konpentsatu egingo dituzte soberan hasierako inbertsio horren kostuak (30). Modu honetan, **Elikadura Erosketa Jasangarrirako Estrategia** bat (EEJE) garatzeak lagundu egingo lieke osasun erakundeei gaur egungo paradigmatic modu jasangarriagoetaranzko aldaketak egiten (31).

Trantsizioranzko norabide honetan, badaude itsasargitzat har daitezkeen esperientzia batzuk Europa mailan, osasun sistemetan elikadura sistema jasangarriak garatzen ari direnak. Adibide interesgarrien artean daude Niort-eko ospitalea (Frantzia), lizitazio kanal desberdinak erabilita tokikoak eta organikoak diren elikagai freskoen erosketa ziurtatzen ari dena; Bispebjerg & Frederiksberg ospita-


leak (Danimarka) bere aldetik, lortu du elikagaien %90-100 ekoizpen ekologikokoak izatearen marka; edo beste adibide egoki bat da Munster-eko ospitalea (Alemania), osasun zentroaren ingurumen kudeaketa oso transbertsala egiten duena, bere baitan hartuta helburuen lorpenerako gertuko eta ekologikoa den elikadura, landareetan oinarritutako dietak, eta animalien ongizatearen bermea.

Euskal Autonomia Erkidegoko osasun sistema publikoak (Osakidetza), oraindik ez die eutsi elikadura sistemarekin lotutako arloei ikuspegi jasangarri eta holistiko batetik. Estrategia integral baten faltak oztopatu egiten du ingurune jasangarrietarako trantsizioa egitea; eta osasunaren determinatzaile sozialetan eragina izango luketen inguruneen sorreraz ari gara, hain zuzen.

02 // Helburua

Osasun sistemetako elikagaien erosketa jasangarriari diziplina anitzeko ikuspegitik ekin behar zaio, derrigor. Elikadura eta osasun sistemaren dimentsio ekonomikoa, kulturala, laborala, instituzionala, soziala eta ingurumenekoak kontuan hartuta inplikatu beharko dira pertsona eta eragileak. Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU), Lehiakortas-

unerako Euskal Institutua den Orkestrarekin elkarlanean garatu du ikerketa prozesu bat honako helburuarekin: **Euskadiko osasun zerbitzuak elikadura sistema jasangarriantz bideratu, Elikagaien Erosketa Jasangarrirako Estrategia (EEJE) baten bidez.** Eskema honek erakusten du egindako **prozesua**:



Horretarako aurrera eraman zen prozesuan diziplina eta sektore anitzeko talde batekin eginiko saioak burutu ziren (ikus 1. Taula). Talde horrek aztertu eta deskribatu zituen zeintzuk diren beharrianak eta erronkak ekintza plan ba-

tean lur hartuko duen estrategia proposamen bat garatu ahal izateko; hau da, **Osakidetza elikadura sistema jasangarriaren lehen pausoak**⁴.

1. TAULA: LAN SAIOETAKO PARTE-HARTZAILEEN PROFILA, EZAUGARRI OROKORRAK

Parte-hartzaileen profila	Erakundea
Osasun Sistemako Pertsonala	
Zerbitzu Orokorretako Zuzendaria	Osakidetza
Erizaina	
Erizain laguntzailea	
Dietista	
Ospitaleko sukaldaria	
Erakunde publikoetako profil akademikoa eta teknikoa	
Elikadura sistemen ikertzailea	University of the Basque Country (UPV/EHU)
Proiektuen kudeatzailea	ELIKA – Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Fundazioa
Proiektuen kudeatzailea	HAZI Fundazioa – Landa eremuen, kostaldearen eta elikaduraren Garapena
Osasun Publikoko Teknikaria	Donostiako Udala
Elikagaien ekoizpenarekin lotutako eragileak	
Zuzendaria	Ekolurra – Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua
Komunikazio Zuzendaria	Harakai Kooperatiba Elkartea
Teknikoa	EHNE – Bizkaia sindikatua
Zuzendaria	ENBA sindikatua
Beste batzuk	
Dietista	Freelance

Jarraian aurkeztuko ditugu proposamen honen ezaugarriak eta eduki zehatzak.

⁴ Prozesu hau xehetasun handiagoz argitaratu da "Regional Studies, Regional Science" aldizkarian: <https://doi.org/10.1080/21681376.2023.2182231>

03 // Elikagaien Erosketa Jasangarri- rako Estrategia baten ezaugarriak

EEJE baten garapen eta inplementazioa epe luzeko proiektu gisa hartu behar da. Elikadura sistema osasungarria eta jasangarria sortzea ez da zeregin erraza, **ezin da egin goizetik gauera eta ez da sektore bakar baten erantzukizuna ere**. Azken “Osakidetzaren markoa 2021-2024” lanak dio osasunaren determinatzaile sozialei ekiteko beharrezkoa dela **osasunean sektore anitzeko ekinbidea** (32). Honek esan nahi du sektore ekonomiko eta sozial ezberdinen arteko elkarlana sendotu egin behar dela, osasun arloko ekitatean aurrera egiteko, eta beraz baldintzatzen duten determinatzaileetan modu positiboan eragiteko. Sektore anitzen arteko ekintza arlo eta sektore ezberdinen arteko elkarlanean datza, osasuna hobetzeko eta bere determinatzaileetan eragiteko, eta osasun sektoreak beste sektore batzuekiko elkarlanean konpromiso eta ekintzetan gau-

zaten da (32). Era berean, **“Erosketa publiko berderako euskal estrategiak”** dio **erosketa eta kontratazioa zeharkako tresna bat dela**, eta bere garrantziagatik, produktuen ziklo osoko ingurumen, gizarte eta ekonomia aldeak aintzat hartzen dituzenez, modu zuzenean zein zeharka laguntzen duela eraldaketa ekonomikoa eta hainbat Garapen Jasangarriko Helburuak lortzea (GJH) (33).

Beraz, **zeharkako gobernantzaren beharrezkoa planteatzen da, elikadura sistemako eragileen parte-hartzearekin (sektore anitzekoa), elikadura sistemaren ikuspegi holistikoa lortzeko** eta horrela EEJE bat garatzeko. **EEJE praktikoa eta eraginkorra garatu** ahal izateko alde asko hartu behar da kontuan (Ikus 1. eta 2. koadroak).

1. KOADROA: EEJE BAT GARATZEKO GAKOAK

- **Partaide izatea eta konpromisoa** zuzendaritza taldearen eta pertsonalaren aldetik.
- **Gaitutako pertsonala** EEJE bat garatzeko.
- **Ikuspegi holistikoa ezarri** elikadura sistema jasangarriaz.
- **Aurreikusi** erronkak, **identifikatu eta lehenetsi** aukerak.
- **Helburu errealistak ezarri**, eta erakundearentzako erronkak izango direnak.
- **Ekintza plana sortu** (nork, zer, noiz, nola) **espektatiba argiekin**.
- **Ebaluaketa plan bat sortu** (barne zein kanpo onurak kontuan hartu (nekazariak, animaliak, ingurumena, e.a.))
- **Elikadura politiken komunikazioa** erakunde osoari, hornitzaileei eta erabiltzaileei.
- **Komunikatu** arrakasta pertsonen gogoan, konpromisoan eta sormenean eragiteko.

Iturria: (34)-tik moldatua


- **Tokiko eta sasoiko** osagaien erabilpena gehienera eramán.
- **Energiaren erabilpena** gutxienera murriztu.
- Ingurumena babesten duten eta animalien **ongizatea ziurtatzen duten sistemekin ekoizitako elikagaiak.**
- **Arraina** jatorri jasangarrietatik eratorria izango da.
- **Inportatutako produktuak** bidezko merkataritzakoak izango dira.
- Botilako ura ekidin. **Iturriko ura** zerbitzatu, behin eta berriz erabiltzeko pitxerretan.
- **Osasuna eta ongizatea sustatu.** Barazki, fruta eta osoko zekaleak bezalako oinarritzko **elikagaien anoa eskuzabalak.** Gatza, koipe eta olioén kontsumoa gutxitu eta gehigarri artifizialak kendu.

Iturria: (27)-tik moldatua

04 // Tokian tokiko abiapuntua: Euskadiko osasun sistemaren baitako elikadura sistema

Osakidetzak, bere hainbat urterako osasun estrategian, **Osasun Komunitarioaren aldeko apustua egiten du, osasun zerbitzuen ardatz nagusi gisa.** Bere Arreta Integratuko

Planak hiru zutabe ditu: gobernantza integratua, populazioaren gaineko ikuspegia eta kultura/balioak (35).



2. IRUDIA: EUSKADIKO ARRETA INTEGRATURAKO PLANA.

Iturria: (35) -etik moldatua

Lan saioen aurretik Osakidetzako eragileei egindako elkarrizketetan argi geratu zen erosketa berritzailea eta berdea garatu dela Osakidetzak eskaintzen dituen zerbitzuetako arlo askotan. Aitzitik, horrek oraindik ez du eraginik izan elikagaien erosketaren arloan. Jaso den mezu orokorra hau da: Osakidetzak helburutzat duela gaixoen eta erabiltzaileen beharrian fisiologiko-nutrizionalak eta higieniko-sanitarioak asetzea. **Baina, ikuspegi hau erredukzionista** da; hau da, ospitaleetako elikadura zerbitzuek ez dute aintzat hartzen elikadura sistemaren ikuspegi horlistikoa, ezta sistema horrek maila ezberdinetan daukan eragina ere. Arreta integratuko zutabeak, beraz, Osasun Antolaketa Integratuetako (OSI unitateak) elikadura zerbitzuetatik at geratzen dira.

Elkarrizketatu diren bost ospitaleetako batean ere ez zegoen elikagaien erosketarako estrategiarik, ezta elikagai hondakinen kudeaketarako beste inolako estrategiarik ere. Beraz, ikusi zen elikagaien **erosketa jasangarriaren implementazioa ez dela Osakidetzan indarrean dagoen lan ildo bat.**

ELIKAGAIEN EROSKETAZ OSAKIDETZAK GAUR EGUN DAUKAN IKUSPEGIA

Osakidetzako OSI bakoitza independentea da elikadura zerbitzuen hornikuntzaz erabakiak hartu eta kudeatzeko. **Osakidetzako ospitaleetako elikadura sistemaren ezaugarri nagusiak**, lizitazio dokumentuen azterketatik eta egindako elkarrizketetatik ondorioztatu direnak, honako elementuak barnebiltzen dituzte:

- Erakunde bakoitzeko elikadura zerbitzuaren eta elikagaien erosketen jasangarritasun maila Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzako kideen **motibazio pertsonalaren araberakoa** da.
- **Ez dago elikadura estrategiarik inongo kasutan.**

Informazioa lehen eskutik jasotzeko helburuarekin, ikerketa taldeak zenbait elkarrizketa egin zituen (4 aurrez aurre eta 1 telefonoz), Osakidetzako ospitale ezberdinetan (Galdakao, Urduliz, Gurutzeta, Eibar, Zumarraga).

Elkarrizketatuen artean zeuden Zerbitzu Orokorretako Zuzendariak eta Sukaldeko Arduradunak, eta horietako batean, Catering enpresa bateko teknikaria.

Eztabaidatutako gai nagusiak izan ziren:

- Elikagaien erosketarako estrategia baten existentzia.
- Elikagai hondakinen gaineko estrategia baten existentzia.
- Jasangarritasun irizpidea sartzeko lizitazio prozesuetan.
- Tokiko ekoizleekiko komunikazioa.
- Elikagaien eskari sistema.
- Formazioa elikadura sistema jasangarriez.

- Ospitale batzuk **ekintza puntualak** egiten dituzte (ez dira proiektu estrategikoak), jasangarritasunarekin lotuta (adibidez, menu organikoa zerbitzatu Ingurumenaren Nazioarteko Egunean).
- Ez dago ospitalerik elikagaien ekoizleek zuzenean hornitzen duenik. **Tokiko ekoizle sektorearekiko kontakturik ez dago, edo egotekotan oso txikia da.**
- Lizitazio gehienek **sorta bakarra** eskaintzen dute, modu horretan parte hartzeko aukera murriztuz hainbat PYME edota tokiko elikagaien ekoizpen elkarteei.
- Elikagaien hornikuntza gehiena enpresa **hornitzaile bakarretik** dator (catering enpresa).

- **MEAT⁵ irizpideak ez dira lizitazio dokumentuetako oinarritzko zati**; beraz, erosten diren elikagaien kanpo faktoreak ez dira ebaluaketarako aintzat hartzen.
- Produktuen kalitatea tamainan eta kanpoko **itxura estetikoa eta homogeenan oinarritzen da**, ekoizpen metodoari garrantziarik eman gabe.
- Elikadura Sistema Jasangarriei buruzko **etengabeko formakuntza mugatua** da, edo ez dago.
- **Ez dago aurrekonturik** ezarrita EEJE bat garatzeko.

Beraz, jasangarritasun dimentsioak ia ez dira kontuan hartzen elikagaien erosketan (kostua da gehien baloratzen den irizpidea), eta aztertutako kasuetan ez dago balizko trantsizio baterako ibilbide orririk.

Ikerketa prozesuan jasotako informazioarekin AMIA analisia egin zen EEJE-ei buruz Euskal Osasun Sistematan (2. taula).

2. TAULA: EUSKAL OSASUN SISTEMAN ELIKADURA ESTRATEGIA JASANGARRIRAKO AMIA ANALISIA

Indarguneak	Ahulguneak
<ul style="list-style-type: none"> • EEJE bat garatzeko badago laguntza tekniko eskura (adibidez, IHOBE, akademia edo gizarte eragileak). • Ospitale gehienek sukalde propioa daukate. • Badago gaitasuna hutsetik hasita kozinatzen. • Euskadik badauka ahala tokikoa eta jasangarria izango den elikadura eskaintza garatzeko. • Euskadik badauka lantzeko moduko lurra, gertukoak eta ingurumenarekiko errespetuzkoak izango diren elikagaiak ekoizteko, autohornikuntzarako gaitasuna handituz eta lurrak horretarako gordeta. • Euskal gizarteak garrantzia handia ematen dio janariaren balioari eta kulturari. 	<ul style="list-style-type: none"> • Elikadura Sistema Jasangarriei (ESJ) buruzko ezagutza eta etengabeko formakuntza falta. • Ibilbide orri eta tokiko erreferentzia bezala balioko duen EEJE baten falta. • Tokiko ekoizleekiko komunikazio falta. • Beste OSlekiko komunikazio falta. • Elikagai jasangarriak aintzat hartzea errazten ez duten lizitazio irizpideak. • Kostua, lizitazioak esleitzeko irizpide nagusia da. • Osakidetzak ez du inbertitzen EEJE-n. • Finantziario publikoak Euskadin ez du lehenesten ESJ garatzea. • Elikadura sistema ez da hartzen ikuspegi holistikotik.
Aukerak	Mehatxuak
<ul style="list-style-type: none"> • OSI bakoitzak bere elikadura estrategia sortzeko autonomia dauka. • Ospitaleko kafetegiek eta ospitale txikiek ESJ-rako trantsizioan lehen pausoak emateko eskala egokia dute. • Itun Berdea (EB) eta bere programa "Etxaldetik mahaira" aukera bat dira instituzioetan eragiteko eta ESJ-ranzko trantsizioa egiteko. • Europan eta munduan adibide inspiratzaile asko dago, beraingandik ikasteko nola eman ESJ-ranzko trantsizio pausoak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritzako sektorearen belaunaldi errelebo krisiak oztopatu egiten du tokiko eta jasangarriak diren elikagaien hornikuntza. • Nekazaritzako errelebo faltak komunitatearen osasunean eragina dauka. • Erosen diren elikagaien kalitateak ez du kontuan hartzen produktuen Kanpoko eraginik.. • Nekazaritzako lurren artifizializazioa.


Iturria: geronek egina.

⁵ Ekonomikoki Abantaila gehien duen Eskaintzarako Irizpideak (MEAT, bere ingelerazko siglengatik), kontratazio publikoari buruzko 2014/24/UE zuzentarauan jasota daudenak, erabil ditzake adjudikatzaileak eskaintzaren alde kualitatibo, tekniko eta jasangarriak islatzen dituzten irizpideak aintzat hartzeko, prezioarekin batera esleipenerako erabakia hartu ahal izateko.

05 // Osakidetzako osasun erakundeetan elikadura sistema jasangarrirako hazi bat

Euskal Osasun Sistemaren EEJE baterako hazi bat eraikitzeko prozesurako, egileek erabili zutena RENASCENCE proiektuaren lehen fasean egindako azterketa bibliografikotik eratorritako markoa izan zen (31). Marko honek lau ildo

nagusi zituen: elikadura zerbitzuak, elikagaien hornikuntza, gobernantza eta zeharkako irizpideak (ebaluazioa, komunikazioa, generoa, epe luzerako konpromisoa, inbertsio ekonomikoa eta ikuspegi holistikoa) (3. irudia).



3. IRUDIA: EEJE BAT ERATZEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO SEGMENTU NAGUSIAK.
Iturria: geronek egina

Marko honek lagundu egin zuen EEJE bat garatzeko helburuarekin lan egiterakoan erronkak eta ekintzak modu zehatzagoan definitzen. Are gehiago, ESJ-ren ikuspegi holistikoa batetik, ulertzen da atal hauetako bakoitzak eragina daukala gainontzeko erronka eta ekintzetan.

Ikerketa prozesuan, eta zehazki osasun sistemako eta elikadura sistemako eragileekin eginiko aurrez aurreko saioetan, **13 erronka eta 30 ekintza plan identifikatu ziren, aintzat hartzekoak Euskal Osasun Sistemaren EEJE baterantz lan egiterakoan** (3. taula).

3. TAULA: EUSKAL OSASUN SISTEMAN EEJE BATEKIN LOTUTAKO ERRONKAK ETA EKINTZA PLANAK

ERRONKA	EKINTZA PLANA
ZEHARKAKOAK	
#1: Osasun Antolakunde Integratu (OSI) bakoitzaren hasierako DIAGNOSTIKOA	<p>1. Ospitalearen egungo elikadura katearen egoera ebaluatu eta ospitalearen elikadura ingurunearen diagnostikoa egin. Honetan oinarrituta, hobekuntza helburuak ezarri:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldiroko ebaluazioak, aldaketak eta lortutako onurak baloratzeko, e.a. • Produktuen zenbateko orokorra zehaztu (tokikoak, ekoizpen mota...). • Kontsumitzen ez diren menuak ebalatu, hondakinak. • Datuak alderatzeko diagnostikorako metodologia amankomuna ezarri.
# 2: langile eta osasun erabiltzaileen SENTSIBILIZAZIOA eta FORMAKUNTZA	<p>2. Kontzientziazio kanpainak OSletan, kokatutako diagnostikoa oinarritzat hartuta.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Publiko ezberdinei zuzendua (zuzendaritzetakoak, langileak, erabiltzaileak). • Erabakitzeko ahalmena duten pertsonak sentsibilizatu; baita ospitaleko pertsonala ere. • Heziketa eta informazio kanpainak. Arazoa ikusarazi. • Elikadura osasungarri eta jasangarriari buruzko aldiroko formazioa. <p>3. Jasangarritasunari buruzko gaiak txertatu arloko Unibertsitate Graduetan eta Lanbide Heziketan.</p> <p>4. Informazio kanpainak populazio zabalarentzat. Pertsonal dietetikoa ere tartean sartu.</p>
ELIKADURA ZERBITZU OSASUNGARRI ETA JASANGARRIAK	
# 3: MENU osasungarriagoak eta jasangarriagoak SUSTATU	<p>5. Menuen azterketa eta eguneratzea. Gaixoen beharrianetara egokituak (malgutasuna, gaixoaren profila aintzat hartuta).</p> <p>6. Konektatu dietistak elikagaien ekoizpen sektorearekin (sasoiko produktuak, ekoizpen metodoak eta horien eraginak... eta jakintza hori menuaren diseinuan erabili).</p>
# 4: KOORDINATU hondakinak	<p>7. Optimizatu erosketen kopurua eta biltegitratzearen kudeaketa</p> <p>8. Kopuru kozinatuen koordinazioa eta kontrol handiagoa (hondakinak gutxienera eraman).</p> <p>9. Plantarekiko koordinazioa (ospitaleratzeen eta alten gaineko kontrola), hobeto jakiteko zenbat menu zerbitzatu behar diren.</p> <p>10. Hondakinen ebaluazioa ingurune ezberdinetan.</p>
ELIKAGAIEN HORNIKUNTZA SISTEMA JASANGARRIA	
# 5: ELIKADURA JASANGARRIA LEHENETSI	<p>11. Jasangarritasuneko eta produktu jasangarrien irizpideak ezarri (hurbilekoak, ekologikoak...)</p> <p>12. Ekoizleen elkarrekin sustatu eta sortu.</p>
# 6: TOKIKO NEKAZARITZA EKOIZPENA	<p>13. Lizentziazio irizpideak EEJE irizpideetara moldatu.</p> <p>14. Topaguneak sortu, harreman eta jakintza trukerako elikagaien ekoizle eta OSlen artean.</p>
# 7: LEHEN SEKTOREAN PERTSONAK INSTALATZEA SUSTATU	<p>15. Haurren hezkuntzan, eskolako curriculumean elikagaien ekoizleek duten garrantzia balorizatu, osasun eta jasangarritasun iturri gisa.</p> <p>16. Lehen sektoreak egun daukan instalazio politika ebaluatu, akonpainamendua, erraztea... politika arrakastatsua diseinatzeko.</p> <p>17. "Monitorizatu" lehen sektorean jarduteko interesa daukan populazioa.</p>
# 8: LURRERAKO SARBIDEA	<p>18. Lurraren erabilpena eskuratzeko egun dagoen politika ebaluatu eta arrakastatsua izango den bat diseinatu.</p> <p>19. Ekoizten ez duten nekazaritzako lurak monitorizatu. Elikagaiak ekoizteko erabiltzen ez diren nekazaritzako lurri zergak ezarri.</p>
# 9: TOKIKO EKOIZPEN MAILAREN HASIERAKO DIAGNOSTIKOA	<p>20. Tokiko ekoizleen datu basea sortu, sailka. Ekoizpen sektorearen gaitasunak ez luke mugatu behar bertan erostea.</p>

MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA	
# 10: DIZIPLINA ANITZEKO LAN TALDEA. Gobernantza eta lidergoa, gaitasun loteslearekin.	<p>21. Balioak partekatu eta definizioak argi izan: elikadura osasungarria, elikadura jasangarria.</p> <p>22. Lehen sektorea lan taldean sartu.</p> <p>23. Baliabideak identifikatu: pertsonak, denbora, gaitasunak, aurrekontua... Taldeak epe motzeko, ertaineko eta luzeko helburuak eta antolaketa egitura ezarri behar ditu.</p>
# 11: ELIKAGAI OSASUNGARRI ETA JASANGARRIEN ESKURAGARRITASUNA.	<p>24. Elikadura osasungarri eta jasangarria sustatu ospitaleko ingurune guztietan: gaixoak, ekipamendua, kafetegia, vending...</p>
# 12: LEGE MARKOA ETA BISIO JASANGARRIDUN LIZITAZIOETARAKO IRIZPIDEAK	<p>25. Bizi zikloaren analisia hartu behar da kontuan; hau da, kalitatearen eta kostuaren arteko harremana.</p> <p>26. Baldintzen pleguan eskakizun bat ezarri, produktuak sorta txikiagoetan banatzeko; modu horretan hornitzaile desberdinei esleitu ahalko zaizkie.</p> <p>27. Lege markoa aldatzeko lobbien sorrera.</p> <p>28. Beste herrialde eta estatu batzuetan Elikagai Jasangarri, Osasungarri eta Seguruaren inguruan dauden arautze esperientzien behatokia.</p> <p>29. Osakidetzan dietistak eta nutrizionistak txertatu, gaixoekin harreman zuzena izango dutenak eta mediku taldeko partaide gisa.</p>
# 13: ELIKADURA EKOLOGIKOA ETA JASANGARRIA BALORATU	<p>30. Lizitazioetan produktu organikoak eta tokikoak lehenetsi. Tokiko elikagai hornitzaileen gaitasuna ebaluatu. Antolakundearen eskariak eta hornitzaileen eskaintza ahalmenak bat egin behar dute.</p>

06 // Elikagaien erosketa jasangarrirako estrategiatik espero daitekeen eragina

Elikagai jasangarrien ekoizpen eta kontsumorako moduen sustapenak eragin nabarmena izango du lurraldean elikadura sistema jasangarria garatzeko. Sektore publikoko erakundeak, erosketen gune esanguratsu gisa, herrialdeko elikadura ekonomiaren parte garrantzitsua dira (30).

Reindhart-en azterketa batek (2018) adierazi zuen **kontratazio publikoa osasun publikorako estrategia gisa** are sinesgarriagoa dela logika ekonomikoa aintzat hartzen denean. Ebidentziak erakusten du osasun publikoan prebentzio mailan onura garrantzitsuak daudela inbertsioen ondorioz: prebentzioan inbertitutako dolar bakoitzeko, me-

diku arretako gastuan 5.60 dolar aurrezten dela estimatzen da. Instituzioetako aurrekontuak elikagai osasungarri eta jasangarrien erosketarako garatzeak, osasun publikoan prebentziorako esfortzuak sustatuta, onuragarria da pazienteentzat ez ezik, profesionalentzat eta osasun erakundeentzat ere (35).

Epe luzeko ikuspegi honek, **konpromiso sozial eta ekonomikoarekin**, tokian tokiko eragin biderkatzailea ekar dezake, ekonomiaren berlokalizazioa barne, eta ekonomia denez osasunaren determinatzaileetako bat, azken finean populazioaren eta tokiko komunitateen osasunean eragiten du.

Askok pentsa dezakeen arren zaila dela elikagaien erosketan egungo praktiketarik jarduera jasangarrietaranzko trantsizioa egitea, **ebidentziak erakusten du aldaketa beharrezkoa dela eta orain dela horretarako unea**. Gaur egungo egoerak, kolapsoan den sistema batena izanik, aldaketarako premiazko pausoak ematera bultzatzen du.

Gaur egungo inertiarekin, berriz, osasun sistemek gaixotzen gaituen elikadura sistema bat sustatzen jarraituko

dute, modu desberdinetan; komunitateen alde sozioekonomikoak okertzen dituen, elikadura osasuntsu baterako eskubide kolektiboa aintzat hartzen ez duena eta ingurumena kaltetzen duena, osasun sistemen gaineko presioa handituz.

Espero dugu dokumentu hau lehen pausoa izatea Euskal Herriko OSI eta osasun erakundeetan EEJE bat diseinatzen eta inplementatzen hasteko, diziplina eta sektore anitzeko bidetik.

Erreferentziak

- (1) World Health Organization. (2000). *The World health report : 2000 : health systems : improving performance*. World Health Organization. <https://apps.who.int/iris/handle/10665/42281>
- (2) Benito A., et al. (2016) Osasuna ikuspegi komunitario batetik lantzeko gida metodologikoa. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 2016. Acceso 27/06/2023 https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/salud_comunitaria/eu_def/adjuntos/guia-metodologia-eus.pdf
- (3) Organisation for Economic Co-operation and Development (2022) *The impact of COVID-19 on health and health Systems*. Acceso 27/06/2023. <https://www.oecd.org/coronavirus/en/themes/resilient-healthcare>
- (4) Fanzo J., et al.(2021) The importance of food systems and the environment for nutrition. *Am J Clin Nutr*, 113:7–16.
- (5) Barrett CB. (2020) Actions now can curb food systems fallout from COVID-19. *Nat Food*;1:319–20
- (6) The International Panel of Experts on Sustainable Food Systems. (2020) *COVID-19 and the crisis in food systems: Symptoms, causes, and potential solutions*. Comunicado de IPES-Food. Acceso 27/06/2023 <https://www.ipes-food.org/pages/covid19>
- (7) HLPE (2014). Food losses and waste in the context of sustainable food systems. A report by the High Level Panel of Experts on Food Security and Nutrition of the Committee on World Food Security. Rome. Acceso 27/06/2023 <https://www.fao.org/3/i3901e/i3901e.pdf>
- (8) Burlingame B.& Dernini S. (2012). Sustainable diets and biodiversity: Directions and solutions For policy, research and action. *Research and Action*, 309. <https://www.fao.org/3/i3004e/i3004e.pdf>
- (9) Bidezko Elikadura (2016) *Dame Veneno: El viaje al centro de la tierra que nos enferma*. Barcelona: Justicia Alimentaria Global. Acceso 27/06/2023 https://justicialimentaria.org/wp-content/uploads/2022/01/informe_dameveneno.pdf
- (10) Gobierno Vasco (2017) *Iniciativas para una alimentación saludable en el País Vasco*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. Acceso 27/06/2023 <https://www.euskadi.eus/informacion/iniciativas-para-una-alimentacion-saludable-en-euskadi/web01-a2osabiz/es/>
- (11) European Commission (2017) *European Semester Thematic Factsheet Health Systems*. Acceso 27/06/2023. https://commission.europa.eu/system/files/2018-06/european-semester_thematic-factsheet_health-systems_en_0.pdf
- (12) European Commission, Directorate-General for Research and Innovation, Group of Chief Scientific Advisors, (2020) *Towards a sustainable food system – Moving from food as a commodity to food as more of a common good : independent expert report*, Publications Office, Acceso 27/06/2023, <https://data.europa.eu/doi/10.2777/282386>
- (13) SAPEA, Science Advice for Policy by European Academies. (2020). *A sustainable food system for the European Union*. Berlin: SAPEA. Acceso 27/06/2023, <https://doi.org/10.26356/sustainablefood>
- (14) HLPE (2017). Nutrition and food systems. A report by the High Level Panel of Experts on Food Security and Nutrition of the Committee on World Food Security, Rome. Acceso 27/06/2023, <https://www.fao.org/3/i7846e/i7846e.pdf>
- (15) Downs SM., et al (2020) Food Environment Typology: Advancing an Expanded Definition, Framework, and Methodological Approach for Improved Characterization of Wild, Cultivated, and Built Food Environments toward Sustainable Diets. *Foods*, 9(4), 532; <https://doi.org/10.3390/foods9040532>
- (16) European Public Health Alliance (2021) Food Environments & EU food policy. Discovering the role of food environments for sustainable food Systems. Acceso 27/06/2023. https://foodpolicycoalition.eu/wp-content/uploads/2021/10/Food-Environments-for-SFS_EU-FPC.pdf
- (17) Food and Agriculture Organization (2016) Influencing food environments for healthy diets. Rome: FAO. Acceso 27/06/2023. <http://www.fao.org/3/a-i6484e.pdf>

- (18) Rideout K., et al. (2015) Food Environments: An Introduction for Public Health Practice. National Collaboration Centre for Environmental Health. Acceso 27/06/2023. https://www.nccch.ca/sites/default/files/Food_Environments_Public_Health_Practice_Dec_2015.pdf
- (19) Harvie J., et al. (2009) A New Health Care Prevention Agenda: Sustainable Food Procurement and Agricultural Policy. *J Hunger Environ Nutr*, 4 (3-4), 409-429. doi:10.1080/19320240903329055
- (20) Canadian Institute of Climate Choices (2021) The health costs of climate change how canada can adapt, prepare, and save lives. Acceso 27/06/2023. <https://climateinstitute.ca/reports/the-health-costs-of-climate-change/>
- (21) Limaye VS., et al. (2019) Estimating the Health-Related Costs of 10 Climate-Sensitive U.S. Events During 2012. *Geo-Health*, 3, 245–265. <https://doi.org/10.1029/2019GH000202>
- (22) Organización Mundial de la Salud (2021) Cambio climático y salud. Acceso 27/06/2023. <https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/climate-change-and-health>
- (23) Hickman C, et al. (2021) Climate anxiety in children and young people and their beliefs about government responses to climate change: a global survey. *The Lancet*, 5,12, e863-e873. DOI:[https://doi.org/10.1016/S2542-5196\(21\)00278-3](https://doi.org/10.1016/S2542-5196(21)00278-3)
- (24) Fanzo J., et al (2021) The importance of food systems and the environment for nutrition. *Am J Clin Nutr*. 113(1): 7–16. doi: 10.1093/ajcn/nqaa313
- (25) Klein K et al. (2014) Environmental Nutrition Redefining Healthy Food in the Health Care Sector. *Health Care Without Harm*, 2014 Acceso 27/06/2023. https://noharm-uscanada.org/sites/default/files/documents-files/2819/Environmental_Nutrition_HCWH_September_2014.pdf
- (26) Knudson J. (2013) Healthier hospital food can affect health of patients and the planet. *AORN* 97 (6): C1, C8-10. doi: 10.1016/s0001-2092(13)00474-2.
- (27) Department of Health (2009) *Sustainable food A guide for hospitals*. Acceso 27/06/2023. https://www.sustainweb.org/pdf2/295087_sustainablefoodguide_acc.pdf
- (28) Comisión Europea (2020) *Pacto Verde Europeo*. Brussels. Acceso 27/06/2023. https://ec.europa.eu/info/strategy/priorities-2019-2024/european-green-deal_es#documents
- (29) Comisión Europea. (2020) *Farm-to-Fork*. Acceso 27/06/2023. https://ec.europa.eu/food/system/files/2020-05/f2f_action-plan_2020_strategy-info_en.pdf
- (30) Barling et al. (2013) *Revaluing Public Sector Food Procurement in Europe: An Action Plan for Sustainability*. Foodlinks Project. Wageningen University: Wageningen, Holanda. Acceso 27/06/2023. https://base.socioeco.org/docs/foodlinks_report_low.pdf
- (31) Alberdi G & Begiristain-Zubillaga M.(2021) *Identifying a Sustainable Food Procurement Strategy in Healthcare Systems: A Scoping Review*. *Sustainability*, 13, 2398. <https://doi.org/10.3390/su13042398>
- (32) Departamento de Salud Gobierno Vasco (2020) *Marco Estratégico 2021-2024*. Vitoria-Gasteiz. Acceso 27/06/2023. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/marco_estrategico_2021_2024/es_def/adjuntos/Marco-Estrategico-Departamento-Salud-2021-2024.pdf
- (33) Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente (2021) *Programa de compra y contratación pública verde de Euskadi 2030*. Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco. Acceso 27/06/2023. <https://www.euskadi.eus/documentacion/2021/programa-de-compra-y-contratacion-verde-de-euskadi-2030/web01-a2inggar/es/>
- (34) Food Alliance (2014) *A Guide to Developing a Sustainable Food Purchasing Policy*. Acceso 27/06/2023. <https://nlfoodaction.ca/wp-content/uploads/A-Guide-to-Developing-a-Sustainable-Food-Purchasing-Policy.pdf>
- (35) Osakidetza (2015) *Plan de Atención Integrado se basa en tres pilares: gobernanza integrada, enfoque poblacional y cultura y valores*. Eusko Jaurlaritz. Acceso 27/06/2023. [osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/buen_gob_planes/eu_def/adjuntos/Plan_de_atencion_integrada_en_Euskadi.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/buen_gob_planes/eu_def/adjuntos/Plan_de_atencion_integrada_en_Euskadi.pdf)
- (36) Reindhart S., et al. (2018) Health Professionals as Partners in Values-Based Food Procurement. *AMA Journal of Ethics*, 20 (10): E974-978. doi: 10.1001/amajethics.2018.974.